

MOZIOA: ESKOLA-ERAIKINEN MANTENTZE-PLANA

Azken ikasturteetan, bai Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila bai gure udala partida ekonomiko oso garrantzitsuak bideratzen ari dira Lasarte-Oriako eskola-eraikinetan inbertsioak egiteko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2006 Legearen 17. artikuluko 23. atalean, udal-eskumenei buruzkoan, adierazten du udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango ditula honako eremu material hauetan: *Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatze-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.*

Gaur egun, Lasarte-Oriako eskola-maparen barruan, udalak eskola-eraikinak zaintzeko, mantentzeko eta zaintzeko ardura dituen eraikinen artean haurreskola eta bi ikastetxe publiko ditu, eta azken hauetako bakoitzak bi eraikin desberdin izanik. Horren guztiaren ondorioz, eskola-eraikinen mantentze-lanen kudeaketaren karga-bolumena oso garrantzitsua da, eta zaila izaten ari da garrantzi ekonomiko handiko mantentze-lanak kudeatzea.

Hori dela eta, EAJ-PNVren udal taldeak honako hau proposatzen du Lasarte-Oriako udalbatzarrean eztabaidatzeko:

1. Zuzendaritza-taldeekin eta guraso-elkarteekin batera ikastetxe bakoitzean behar diren obra handietan lehentasunak ezartzea, eta urtero gauzatu beharreko lehentasunekin dokumentu bat sortzea.
2. Gobernu-taldeak, udal-aurrekontuetan, ezarritako lehentasunen arabera mantentze-lanetarako berariazko partidak egokitzea.